

URBASA ETA ANDIA MENDIETARA AZIENDA IGOTZEKO ESKAERA, 2026. URTEA.

ESKATZAILEAREN DATUAK				
Izen-abizenak				
Kalea:		Udalerria		PK:
NAN/IFK		Adina		Telefonoa
Posta elektroni koa:				
USTIATEGIARI BURUZKO DATUAK				
Ustiategi-zenbakia Ustiatagia	____NA____	Egoera	ATP	
			Erretiratua	
			Beste batzuk	
ENS:SK		NAN	Matrikulak	
Izen-abizenak				
Izen-abizenak				
Izen-abizenak				
Izen-abizenak				
AZIENDARI BURUZKO DATUAK				
Azienda mendietara igotzeko aurreikusten den data		Azienda mendietatik jaisteko data, gutxi gorabehera		
Abelburuak (zenbat)				
Ardiak		Behorrak/Zaldiak		
Behiak		Beste Batzuk ¹		
Behor eta zaldientzat berriro beharreko belarritako-kopurua				
Bakoitzaren azientaren marka bereizgarriak				
Mendietan zure azienta zein parajetan bazkatuko den.-				
Ustiategiaren kudeatzailearen datuak	(Abeltzaintzako ustiategi berriak; titularra ez da parkera sartzen)			
Izen-abizenak				
Ustiatagia kudeatzen duenaren NAN				
Laguntzailearen ibilgailuetarako baimen-eskaera				
Laguntzailearen izen-abizenak				
Laguntzailearen NAN				

☐ Honako hau aitortzen dut: Urbasa-Andia mendietako larreak aprobetxatzeko EKZParen eskakizunak betetzen ditut (340/2001 Foru Dekretua)² eta Urbasa-Andiako herri-jabariko mendietan (2023) larreak aprobetxatzeko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiaren ebazpenean ezarritako baldintzak beteko ditut.

☐ Baimena ematen diot Basogintza eta Ehiza Zerbitzuari Abeltzaintza Zerbitzuaren esku dauden nire abeltzaintza-ustiategiko datuak eskuratzeko, Urbasa eta Andia mendietako larre naturalak aprobetxatzeko indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko egokitzat jotzen dituzten egiaztapen guztiak egin ditzaten.-

☐ Nafarra naizela egiaztatzen duen Erregistro Zibileko agiria aurkezten dut, Urbasa eta Andia mendietan sartzeko nire lehen eskaera izateagatik.

Eskatzailearen sinadura

_____(e)n, 2025eko_____aren ____ (e)(a)n

¹ Zehaztu ahuntz-azienta den, erlauntzak diren...

² Eskabidearen atzealdean baldintzak ezartzen dira.

AZIENDA URBASA-ANDIA MENDIETARA IGOTZEKO BETEKIZUNAK:

1. Nafar foru-izaera zibila izatea, mendilerroetara igotzen den azienda haien jabetzakoak izatea. **Azienda mendietara igotzeko eskaera lehenengo aldiz egiten bada, nafar izaera egiaztatuko duen Erregistro Zibileko ziurtagiria ekarri beharko da.**
2. **Eskaera osoa egitea, agiri-tamainako argazki batekin eta indarrean dagoen NANaren fotokopiarekin batera, azienda mendietara igotzea aurreikusten den eguna baino hiru aste lehenago, gutxienez,** eta Urbasa eta Andia mendien aprobetxamendurako EKZPk eta Baso Plangintzaren eta Ingurumen Hezkuntzaren Ataleko teknikariek ezarritako baldintzak onartzea.
3. Azienda garraiatzea garraio-gida egin ondoren, eta **azienda mendietara sartuko dela jakinaraztea gutxienez 3 egun lehenago**; eguna, ordua eta lekua zehaztuta. Gida dokumentuaren baliozkotasun-aldian igoko diren animaliena izanen da soilik.
4. Azienda osasun-egoera onean igotzea eta osasun-araudia betetzea azienda mendietan dagoen bitartean.
5. Mendietan larreak aprobetxatzen diren bitartean, abeltzaintza-ustategiari eragiten dion edozein aldaketa jakinaraziko da (titulartasunak, ustiapen-zenbakia, arrazoi naturalengatik edo zoonosiagatik izandako bajak eta abar).

INFORMAZIO OSAGARRIA

- **Erreferentziazko telefonoa.** Larreak aprobetxatzeko eta edozein gorabehera jakinarazteko, telefono-zenbaki hauek daude:
 - Basozainak: 608 417 635 - 948 55 48 24 –
 - GAN-NIKeko teknikaria.- 629260209.- Guardetxea: 948.050722 sirigoya@gan-nik.es
- **Ibilgailuen zirkulazio-txartelak/baimenak.** Mendilerroetan zirkulatzeko txartelak eta/edo baimenak abeltzaintzat dira bakarrik, eta abereak mendietan dauden bitartean erabili ahal izanen dira (apirilak 15 - abenduak 15), txabola bat duten abeltzainek izan ezik, horiek urte osoan erabili ahal izanen baitituzte. Txartelak pertsonalak dira eta, horrenbestez, baimendutako abeltzainak bakarrik erabili ahal izanen du. Txartela ibilgailuan jarriko da, beti bistan, edozein unetan kontrolatu ahal izateko. Txartela iristen ez den bitartean, gida eraman eta erakutsi beharko dute. Gogorarazten da mendietan debekatuta dagoela ibilgailu motordunekin ibiltzea "landan zehar" edo bideetatik kanpo. Azkenean azienda mendietara igoko ez duten abeltzainek edo txartela edukitzeko baldintzak betetzen ez dituztenek txartela itzuli beharko dute, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- **Aziendaren gidak.** Azienda mendietara sartzen den unean gida eraman beharko da.
- **Azienda mendietatik ateratzea. Nahitaezkoa da azienda mendietatik irten dela jakinaraztea, ERANSKINA betez eta hori basozainei eta/edo GAN-NIKeko teknikariari entregatuta,** eta, halaber, dagokion gida ateratzea. Datu hori ematea funtsezkoa da larreetako bazka-ekoizpena hobeto ezagutzeko. Azienda mendietatik atera dela ez jakinarazteak Nafarroako Baso Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legea urratzea ekarriko du.
- **Hildako abelburuak.** Mendian hiltzen den aziendaren jabeek eremu gatazkatsuetatik hondakinak kendu beharko dituzte. Leku horiek dira: errepideak eta inguruak, bideak, bidezidorrak, leizeak, errekek eta abar, eta mendietako administratzaileek adierazitako lekuetan uztea. 48 hilabetetik gorako behi-azienda hiltzen bada, jabeak ahal denik eta azkarren eman beharko du horren berri 848 426200 (Nasertic) telefonora deituta.
- **Aziendarekin erabilitako mahukak.** Abeltzaintzako mahukak erabiltzeko, erreferentziazko telefonoei abisatu behar zaie, instalazioen kudeaketa errazteko eta hobetzeko.
- **Azienda igotzeko eta jaisteko datak.** Jakinarazten da azienda larreetan **apirilaren 15etik abenduaren 15era** egon daitekeela, biak barne. Azienda galdu bada edo jaso gabe geratu bada, jabeek horren berri eman beharko dute.
- **Hazteriarren aurkako tratamenduak.**- Urbasa-Andia Parke Naturaleko EKZPk ***ektoparasitoen aurkako tratamendua eskatzen du azienda mendietan dagoen bitartean, abuztuaren lehentasunez***". Horrenbestez, 2024ko kanpainan, ardi-aziendaren abeltzainei hazteriarren aurkako tratamendua aplikatze dezatela eskatuko zaie; tratamendu hori alde batera utzi ahal izanen da, baldin eta Abere Osasuneko Atalak balidatutako tratamendu propioekin aplikatzen dela egiaztatzen badu. Arau hori eskatzearen xedea da mendietan lan egitea lurraldea ardi-aziendarentzat hazteririk gabe mantentzeko. Tratamendu horiek onuradunen kontura izanen dira 2023an zeuden baldintza beretan, eta Ingurumen Departamentuari soilik dagokio tratamendua koordinatzea.



III. ERANSKINA. “Azienda Urbasa eta Andia mendietatik irten dela jakinaraztea”

..... jn./andreak, _____ NA _____ ustiategiko ENS-
Eraldaketaarako Nekazaritza Sozietatearen titular/bazkide denak, honako hau jakinarazten dut:

Urbasa eta Andia mendietatik nire ustiategiko abere horiek atera ditut, data horietan:

Azienda-mota ⁽¹⁾					Buru kopurua:	Data ⁽²⁾	Arrazoia ⁽³⁾
B	Z	A	Ah	E			
B	Z	A	Ah	E			
B	Z	A	Ah	E			
B	Z	A	Ah	E			
B	Z	A	Ah	E			

(1) Ezabatu dagokiona (B.- Behi, Z.- Zaldi, A.- Ardi, Ah.- Ahuntz, E.- Erlauntz)

(2) Adierazten diren abelburuak mendietatik noiz atera diren idatziko da. Atal hau irizpide hauen arabera beteko da:

- Azienda 2 astetik beherako epean atera bada; nahikoa izanen da ilara bakarrean jakinaraztea.
- Azienda 2 astetik gorako epeetan progresiboki atera bada, ateratze horiek proposatutako hainbat ilaratan idatziko dira.

(3) Azienda ateratzea eragin duen funtsezko arrazoia idatziko da, honako hauen artean:

- ☐ Ez dago bazkarik (EB)
- ☐ Ustiategia maneiatu beharra (UM)
- ☐ Zoosanitarioa (Z)
- ☐ Ez dago urik (EU)
- ☐ Besterik (zehaztu) _____

Eta horrela jasota gera dadin;

Urbasa/Andian, 2025eko _____ aren _____(e)(a)n

(Sinadura)

Jakinarazpenak Basozainari edo GAN-NIKeko teknikariari egin beharko zaizkio, abeltzainaren jabetzakoak diren azken abelburuak atera eta gehienez ere 7 eguneko epean.